



EBAZPENA, 2024ko apiliaren 16koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, honako hau aldatzen duena: zuzendari beraren 2024ko apirilaren 8ko ebazpena, publiko egiten duena Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda, 2024/2025 ikasturterako.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko apirilaren 8ko Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda argitaratu zen, 2024/2025 ikasturterako.

Ohartarazi da ezen, 2022ko irailaren 22ko Aginduaren bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesuaren bidez Musika eta Arte Eszenikoko Irakasleen Kidegoko espezialitate batean karrerako funtzionario izendatu diren lau izangaik, akats baten ondorioz, kidego bereko beste espezialitate batzuetako ordezkapenak egiteko izangaien zerrendetan jarraitzen dutela.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko izangaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren 44.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, akats hori zuzentzen da.

Beraz,

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.- Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2024ko apirilaren 8ko Ebazpena aldatzea. Ebazpen horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan ordezkapenak egiteko izangaien behin betiko zerrenda argitaratu zen, 2024/2025 ikasturterako. Ebazpen horretatik kanpo utziko dira I. eranskinean agertzen diren pertsonak eta espezialitateak.

2. artikulua.- Aldaketa argitaratuko den behin betiko zerrendan sartzea, gora jotzeko errekurtsioak ebatzi ondoren.

3. artikulua.- Izangaien behin betiko zerrenda horiek argitaratzeko agintzea webgune honetan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/hezkuntza-langileak/> Ordezkapenetarako izangaik – Irakasleak edo Irakasleak ez diren langileak (kasuaren arabera) – 2024/2025-ikasturtearen birbaremazioa eta Interneteko helbide honetan: <https://hezigunea.euskadi.eus/es> (sartu NAN/AIZ eta pasahitza) - Eremu pertsonala – Izapideak langileen sailarekin – Ordezkapen izangaien birbaremazioa – 2024-2025 ikasturtea.

4. artikulua.- Ebazpen honen aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

**BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 16a

**I. ERANSKINA**

***0373** SANTISTEBAN ETXABE, NOEMI

Zerrendetik kanpo utzi: 0801 Pianoa
0819 Kantua
0883 Korua
1132 Dantzarako errepertorioa pianoarekin

***0585** PULIDO MORILLO, LUIS ÁNGEL

Zerrendatik kanpo utzi: 1132 Dantzarako errepertorioa pianoarekin

***3669** IBARRA LARRINAGA, JUAN MANUEL

Zerrendatik kanpo utzi: 1132 Dantzarako errepertorioa pianoarekin

***5450** MARTINEZ HERVIAS, EDURNE

Zerrendatik kanpo utzi: 1119 Arte dramatikoaari aplikatutako dantza